

2020ko Sanferminen inguruko **oharra**



Herrikide agurgarria,

Lesakako Udalak, aho batez eta bizi dugun egoerak hartara behartuta, aurtengo San Ferminak bertan beheiti uztea erabaki du.

Badakigu zeinen garrantzitsuak diren herriko bestak herritar guzientzat. Hori dela eta ez dugu erabakia sobera goiz hartu nahi izan, ezta bakarrik ere. Bide horretan, azken asteetan, hainbat herritar eta besta eragilerekin solastu gara, elkarri aditu eta elkarrekin hausnarketa egin dugu. Hala nola, honako hauekin: besta batzordea, ostatuak, komertzioak, txozna batzordea, kultur eragileak, etab.

Erabakia gogorra izan da, baina aldi berean erraza. Ez dago bertzerik. Egoera desberdin eta zail bati egokitzea dagokigu aurten, ohitura ditugun gauza aunitz alde batera utzita eta berriak zaizkigun jarrerak gureak eginez. Segurtasuna ez den bertze guzia, San Ferminak barne, bertze maila batean kokatu behar izan da.

Horretan ari gara arduraz, indarrez eta irudimenez. Etorriko dira urte eta gauza berriak, itxitako ate bakoitzak leiho bat irekitzen duelako. Eutsi goiari eta unea, edozein dela, osotasunean bizi!

Agur bero bat,

Lesakako Udaleko alkate eta zinegotziak

